Nazioarteko Sagardo Lehiaketa Sagardo Forum ekitaldiaren barruan egin zen, irudian, irabazleak. GARA

Sagardo mundialak

Euskal sagardotegiek urrezko hamar domina irabazi dituzte II. Sagardo Forum Nazioarteko Lehiaketan eta Zapiainek hiru urrezko domina lortu ditu

J.S. | DONOSTIA

Euskal Herriko sagardotegiek hamar urrezko domina irabazi zituzten azaroan Donostiako Kursaalen egindako Nazioarteko Sagardo Lehiaketan. Guztira 14 herrialdetako 190 sagardo aurkeztu ziren eta horien artean "Best of Show" saria Egoitz Zapiain eta Michigan-eko Paul Vander sagardogileen artean sortutako "Maiti fresh" zaporetako sagardoak irabazi zuen.

Euskal Herriko sagardo naturalaren kategorian, Zapiain Sagardoa izan zen irabazle 2018ko Euskal Sagardoa Premium-arekin, eta beste urrezko bi domina ere eskuratu zituen. Gainera, izotzezko sagardoren atalean irabazle izan zen Bizi-Goxo 2015 produktuarekin.

Mundu osoko dastatzaile adituek 9 kategoriatan sailkatutako 190 sagardo dastatu ostean, 140 domina banatu zituzten: 47 urrezko, 62 zilarrezko eta 31 brontzezko.

SARITUAK

Euskal Herrian ekoitzitako sagardoa
- Dominak: 8 urre (Zapiain 3, Alorrenea 2, Petritegi 1, Zelaia 1, Isastegi 1), 13 zilar (Gurutzeta 2, Oiharte 2, Isastegi 2, Zelaia 2, Gartziategi 1, Paul Vander- Egoitz Zapiain 1, Izeta 1, Araeta 1, Iturriotz 1) eta 4 brontze (Aburuza 1, Araeta 1, Gartziategi 1, Izeta 1).
- Irabazlea: Zapiain sagardoa (EH) - Zapiain sagardoa Lote I

Sagardo natural asturiarra
- Dominak: 3 urre, 4 zilar eta 4 brontze
- Irabazlea: Sidra Piñera (Asturias) - Sidra Piñera

Sagardo tradizional frantsesa
- Dominak: 2 urre, 3 zilar eta brontze 1
- Irabazlea: Cidrerie Menez Brug (AOP Cornouaille)

Sagardo tradizional ingelesa
- Dominak: 1 urre, 3 zilar eta 6 brontze
- Irabazlea: Pilton Cider (Somerset) - Pilton Solstice

Sagardo berriak
- Dominak: 3 urre, 12 zilar eta 9 brontze
- Irabazlea: Ulvik Frukt & Cideri (Norvegia) - Gravenstein

"Premium" sagardo aparduna
- Dominak: 2 urre, 5 zilar eta 8 brontze
- Irabazlea: Aakre Gard (Norvegia) - Edel Cuvee Parka.

Apfelwein
- Dominak: 1 urre, 5 zilar eta 2 brontze
- Irabazlea: Jens Becker (Alemania) - JB Streuobst.

Zaporetako sagardoa eta udardoa
- Dominak: 7 urre, 12 zilar eta 12 brontze
- Irabazlea: Vander Mill Basque Colaboracion (Ameriketako Estatu Batuak) - Maiti fresh

Izotzezko sagardoa
- Dominak: 4 urre, 5 zilar eta 1 brontze
- Irabazlea: Zapiain Sagardotegia (EH) - Bizi-Goxo 2015